



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2022ko UZTAILAREN 28an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2022ko uztailaren 28an, Alkizako Udaletxean, goizeko 10.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Unai Sorarrain Urruzola
Shrabani Aranzabe Pita,

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Concepcion Soria Legua, eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
2. **Fakturak eta ordainketak.**
3. **2021 urteko kontu orokorraren onespena.**
4. **2/2022 zenbakidun kreditu aldaketaren hasierako onespena.**
5. **Udal garbitzailearen ordezkapenerako lan-poltsaren onespena.**
6. **Udal garbitzailearen abuztuko oporrak direla eta honi ordezkatzeko A.M. andreari lan kontratua.**
7. **Erretore etxean, ostatatze erabilerari buruzko erabakia.**
8. **Beste batzuk**
9. **Moziok, erreguak eta galderak.**

.../...

LEHEN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 39/2022tik 41/2022 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.



ALKIZAKO UDALA

BIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

PLASTICOS TECNICOS Y DERIVADOS	355,00
CALCOSA	2.274,80
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	106,96
MAQUELSA	42,17
NORTEGAS	65,80
NORTEGAS	102,44
OTIS	469,27
CORREOS	26,60
EGIMENDI	7,99
NORTEGAS	388,25
CALPARSORO INDUSTRIAL	17,16
CONTENEDORES SARASOLA	139,15
IRAOLA TOLDOS	188,76
SOLRED	86,52
DIONISIO ORMAZABAL	61,73
OSCAR GALINDO	133,10
ULAHI ORONA	613,58
ARGITU ASESORES	176,90
QUISER	244,11
AIZKIBEL	126,22
KEY LAN	24,89

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **5.778,89** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

HIRUGARREN PUNTUA
2021 URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko



ALKIZAKO UDALA

aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2022 urteko ekainaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2021 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2021ko ekitaldiko Kontu Orokorren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2/2022 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Shrabani Aranzabe zinegotzia 10.15 orduak direnean Udalbatza honetara bertaratzen da.

Udala honen 2022 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko 2/2022 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.221.153.04.04 2022	ERREGAI ETA KARBURANTEAK	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.163.153.40.05 2022	PERTSONALAREN BIZI A. BRIGADA	250,00	287,00	537,00
1 0000.163.330.00.05 2022	BIZI ASEGUROA KULTUR DINAMIZATZAILEA	100,00	10,00	110,00
1 0000.204.920.00.01 2022	FOTOKOPIAGAILUAREN RENTING-A	300,00	210,00	510,00
1 0000.211.164.00.01 2022	HILERRIKO MANTENTZEA	500,00	2.736,00	3.236,00
1 0000.221.161.00.01 2022	UR BOMBA ARGINDARRA	6.500,00	2.000,00	8.500,00
1 0000.221.165.00.01 2022	KALEKO ARGINDARRA	3.500,00	1.000,00	4.500,00
1 0000.221.166.00.01 2022	FOSAKO ARGINDARRA	2.200,00	2.000,00	4.200,00
1 0000.221.230.00.01 2022	DON JUANENA ARGINDARRA	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.221.330.00.01 2022	KULTUR ETXEKO ARGINDARRA	6.500,00	1.500,00	8.000,00



ALKIZAKO UDALA

1 0000.221.920.00.01 2022	UDALETXEA ARGINDARRA	5.000,00	1.500,00	6.500,00
1 0000.221.929.00.01 2022	Eliza argindarra	2.500,00	1.500,00	4.000,00
1 0000.224.920.00.01 2022	ERAIKIN ETA LOKALEN ASEGUROA	3.000,00	300,00	3.300,00
1 0000.226.337.00.06 2022	jubilatuen jarduerak	200,00	109,00	309,00
1 0000.369.920.00.01 2022	finantza gastuak	200,00	500,00	700,00
1 0000.227.920.00.05 2022	Artxiboko mantentze lanak	0,00	2.451,00	2.451,00
1 0000.682.920.00.01 2022	Erretore etxeko konponketa lanak	140.859,58	26.000,00	166.859,58
1 0000.683.933.00.02 2022	HERRI OSTATUKO BERRIKUNTZAK	9.000,00	17.000,00	26.000,00
GUZTIRA		183.609,58	60.103,00	243.712,58

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.642.151.00.01 2022	plan orokorra	30.576,00
c	2 0000.720.933.00.01 2022	Landa eremuak. Herri ostatua	12.424,00
c	2 0000.710.920.00.09 2022	Artxiboa mantentzeko dirulaguntza	1.225,00
a	2 0000.870.000.00.01 2022	KREDITU GERAKINA 2021	15.878,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			60.103,00

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez



ALKIZAKO UDALA

balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

BOSTGARREN PUNTUA
UDAL GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENERAKO LAN-POLTSAREN ONESPENA

Ikusirik Herrian zehar garbiketa lanak egiten duen udal langilearen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu nahi duela Alkizako Udalak.

Ikusirik aipaturiko lan poltsa hori osatzeko, 2022ko ekainaren 22an deialdi bat egin zela. Hiru pertsonak izena eman dutelarik.

Ikusirik, ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian daudenak izango dutela, azken hau, momentuan ziurtatuko delarik. Hirurak langabezian egongo balira, 2022ko uztailearen 12an egindako zozketa oinarri hartuko da.

Ikusirik, Lan poltsak urtebeteko iraupena izango duela eta rotatiboa izango dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko ondorengo lan poltsa osatzea:

- A.M.
- J.G.E.
- J.L.B.
-

Ordezkapenak egiteko lehentasuna, langabezian dagoenak izango du. Hirurak langabezian egongo balira 2022ko uztailearen 12an egindako zozketa oinarri hartuko da, lan poltsa rotatiboa izanik.

Lan poltsak urtebeteko iraupena izango du.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdun guzietan ematea.

SEIGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA

UDAL GARBITZAILEAREN ABUZTUKO OPORRAK DIRELA ETA HONI ORDEZKATZEKO A.M. ANDREARI LAN KONTRATUA

Ikusirik, 2022ko uztailaren 28an egindako Udalbatzarrean, Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu zela.

Ikusirik Alkizako udaleko garbitzaileak abuztuaren 1etik 31ra oporrak dituela.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretatik lehentasuna dutela langabezia daudenak.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretan daudenak langabezia daudela, 2022ko uztailaren 12an egindako zozketa oinarri hartu da, ondorioz, Udalbatza honi proposatzen zaio A.M. andrea izan dadila Alkizako udaleko garbitzailearen abuztuko oporrak egingo duen pertsona.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen oporraldirako ordezkapena egiteko, 2022ko uztailaren 28an Udalbatzarrak onetsitako lan poltsa erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: A.M. andreari lan harremaneko kontratua egitea, abuztuaren 1etik 31ra bitartean, udaletxeko garbitzaile moduan dagozkion lanak egin ditzan. Astean 10,30ko ordutako jardunaldi batekin.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ERRETORE ETXEAN, OSTATATZE ERABILERARI BURUZKO ERABAKIA

Errusiak Ukraina inbaditu zuenean eta herritar ukrainarrek beren etxeak utzi behar izan zutenean errefuxiatu bihurturik, jatorri ukrainarreko hainbat



ALKIZAKO UDALA

herritarrek Alkizako udalari galdetu zioten ea udalak tokirik egoki zezakeen iheska etor zitezkeen beren familiartekoak eta lagunak hartzeko.

Udalak egokiak ikusi zituen herritar horien eskaera eta errefuxiatuei aldi baterako babesa ematea erabaki zuen. Hortaz, herriko ostatatze-azpiegiturek aztertu zituen eta horien arten bi aukeratu zituen: Erretore-etxean barnetegi izandakoa eta Donjuanena etxeko ganbarako bi gelak. Barnetegia bizitzeko moduan jartzeko beharrezko tresna eta baliabideak eskuratzeko herritarren artean deia egin zuen eta haiek eskuzabal erantzun zuten. Dei horretatik eskuratzea egon ez ziren tresnak, hozkailua eta arropa garbitzeko makina esaterako, udalak hornitu zituen udal aurrekontua baliatuz.

Martxoaren erdialdean errefuxiatu ukrainarrak iristen hasi ziren herrira eta aipatu azpiegituretan kokatu zituen udalak. Halaber, udala laguntza ematen hasi zitzaion hainbat alorretan: elikagaiak, erakundeen aurreko gestioak (polizia, Zehar-errefuxiatuak, Lanbide,...), euskarazko eta gaztelaniazko eskolak, ...

Maiatzaren 31an 16 ziren herri-azpiegituretan ostatatutako errefuxiatu ukrainarrak: 14 barnetegian eta 2 Donjuanenan.

Ekainaren 12an Barnetegian ostatatutako Maryna K., Ivan K., Mykhailo K., Iryna K. eta Nykon K. errefuxiatuek herria utzi zuten inori abisurik eman gabe. Udalak ez daki non dauden, nora joan diren eta zer asmo duten.

Uztailaren 1ean Tetiana K., Mykhailo T., Hanna T. eta Ksenia T. errefuxiatuek udalari adierazi zioten Poloniarra joan behar zutela pasaporteak egitera Madrilgo Ukrainako enbaxadan ez zelako posible eta pasaporteak egin ondoren Alkizara etorriko zirela adierazi zioten. Udalari eskatu zioten ea beren gauzak erabiltzen ari ziren gelan uzterik bazuten. Udalak ontzat jo zuen eskaera. Gaurko egunez ez dira oraindik bueltatu.

Uztailaren 19an Vera O., Artem O., Dmitry O., Viktoria P. eta Matviy P. errefuxiatuek barnetegia utziko zutela adierazi zioten udalari P. familiakoak Ukrainara buelta egin zuten eta O. familiakoak Donostiara bizitzera joan ziren.

2022ko uztailaren 26an bi dira soilik Alkizan errefuxiatutako ukrainarrak biak Donjuanenan: Liudmyla Z. eta Karolina Z.

Une honetan ukrainar errefuxiatuak ez dago Erretore-etxeko barnetegian babesa harturik.



ALKIZAKO UDALA

Kontutan izanik, Erretore-etxean irisgarritasuna bermatzeko igogailu bat jarri behar dela, Maryna K., Ivan K., Mykhailo K., Iryna K. eta Nykon K. errefuxiatuek erabiltzen zituzten logelak, igogailuaren lanak egiteko beharrezkoak direla hustutzea. Jakinik gainera aipaturiko familiak logela hauetan ez daudela bizitzen pasa den ekainaren 12 ezkeroz.

Hori dela eta, espazioaren erabilera berrantolatzeke asmoarekin eta gerta litezkeen beste babes-eskaerei erantzuna emateko helburuarekin, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erretore-etxeko barnetegia behin-behineko babes-ostatatzea hartu zuten Maryna K., Ivan K., Mykhailo K., Iryna K. eta Nykon K., errefuxiatuei bertan ostatatzeke behin-behineko epea bukatu egin zaiela, 6 aste baino gehiago badirelako azpiegitura hori abisurik eman gabe utzi zutela. Halaber, erroldatik ezabatzeke espedienteari hasiera emango zaio. Errefuxiatuen gaiaz ardura duten gainerako erakunde publikoei erabakiaren berri emango zaie.

BIGARRENA: Erretore-etxeko barnetegia behin-behineko babes-ostatatzea hartu zuten Vera O., Artem O., Dmitry O., errefuxiatuei jakinarazi, Donostira bizitzera joan direnez bertan erroldatu behar direla. Viktoria P. eta Matviy P. errefuxiatuak aldiz, herriko erroldatik ezabatuko zaie Ukrainara bueltatu behar direla jakinarazi bait diote udal honi. Erabaki hau jakinaraziko zaio errefuxiatuen gaiaz ardura duten gainerako erakunde publikoei.

HIRUGARRENA: Erretore-etxeko barnetegia behin-behineko babes-ostatatzea hartu zuten Tetiana K., Mykhailo T., Hanna T. eta Ksenia T. errefuxiatuak bertan ostatatzeke eskubidea gordeta izango dute 2022ko abuztuaren 31 arte. Data horretatik aurrera eskubidea iraungitzat joko da. Ofiziozko baja emango zaielarik.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Maryna K., Ivan K., Mykhailo K., Iryna K. eta Nykon K.; Vera O., Artem O., Dmitry O.; Viktoria P. eta Matviy P. eta Tetiana K., Mykhailo T., Hanna T. eta Ksenia T. errefuxiatuei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.



ALKIZAKO UDALA

8.1. ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAREN LIZITAZIOA HUTSIK GELDITU IZANA ONESTEA

Ikusita, 2022ko maiatzaren 31an egindako Udalbatzarrean ondorengo erabakiak hartu zirela:

“LEHENENGOA.- Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko egiteko kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez kontratatzeke espedientea onartzea. Kontratuaren balio zenbatetsiari 107.483,87 euro dagozkio, eta 22.571,61 euro jasanarazi beharko zaizkio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, eta 16 asteko egikaritze-epea.

BIGARRENA.- Alkizako Udalaren 2022. urteko gastuen aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura 130.055,48 euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Obra kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeke baldintza administratibo berezien agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, eta kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean dagokion lizitazio-iragarkia argitaratzeko agindua ematea, hogeit eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezzen. 2017 SPKL 159.3).”

Ikusita, Kontratatzailearen profilean lizitazio-iragarkia argitaratu zela 2022ko ekainaren 15ean, proposamenak aurkezteko epea 2022ko uztailaren 5an bukatzen zelarik.

Ikusita, aurreko paragrafoan aipaturiko epean ez dela inolako proposamenik aurkeztu. Udalbatza honi, Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko lizitazioa bertan behera uzteko proposamena luzatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENA: Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko lizitazioa bertan behera uzteko onespina ematea, proposamenik ez delako egon.

BIGARRENA: Erabaki honen berri jendaurrean jartzea Kontratatzailearen profilean argitaratuz.

8.2. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -ren arteko 2022 urterako Lankidetza Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetza hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetza hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2022 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.428,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2022ko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.428,00 eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 11.05etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

